


Arabako Campuseko Ortuan egindako irakaskuntza-jarduera

Ikasgaia	Lauhilabetekoa	Ikasle kopurua
Matematika eta bere Didaktika II	Urte osokoa	25
Irakasleak		
Elena Agirre Basurko		
Ekintzaren izenburua		
Gure eskolak eremu berria du!		
Helburua		
<i>Geometria eta Magnitude eta neurria</i> gaiak lantzea, Lehen Hezkuntzako eskola batean ikasleekin aritzeko eremua diseinatzeko orduan.		
Metodologia		
Problemen ebazpenean oinarritutako metodologia aplikatu da eta, Arabako Campuseko baratzea toki modura aukeratuta, Place-Based Learning ikuspegia eman zaio lanari.		
Praktikaren plangintza		
<p>Ikasleak ondoko egoera honen aurrean daude:</p> <p>“Pentsa ezazue maisu/maistra zaretela halako lursaila duen eskolan, eta eskatzen dizuetela eremuaren diseinua egitea Lehen Hezkuntzako ikasleekin bertan aritzeko. Bi asteko epean proiektuaren proposamena aurkeztu behar diozue eskolako zuzendaritza-taldeari.”</p> <p>Proiektuaren barruan ere mural bat egin behar da, eremu horretako ezker horman margotuko dena.</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Lursailaren neurri hartu behar dira. Kontrastatu hartutako neurriak planoko neurriekin. 2. Pentsatu eta erabaki nola banatu espazioa eta zein gune izango dituen. 3. Zehaztu gune bakoitzari emango zaion erabilera, kontuan hartuta Lehen Hezkuntzako ikasleentzat dela. 4. Murala diseinatu. 		
Praktikaren garapena		
<p>Ikasleek taldeka egingo dute lan, 4-5 ikasleko taldeak osatuz.</p> <p>Arabako Campuseko baratzearen forma eta dimentsioa hartu da adibide, berau balitz bezala eskolak ikasleekin aritzeko birmoldatu nahi duen lekua. Hau da eremuaren diseinurako gure Campuseko baratzea hartu da eta, hasteko, hara joan da lana egingo duen unibertsitateko ikasle taldea (1. irudia) lursaila neurtzera eta beraien burua toki errealean jartzera.</p>		



1. irudia. Campuseko baratzea bisitatzen.


Lursailaren neurriak hartu behar dira eta kontrastatu hartutako neurriak planoko (2. irudia) neurriekin.



2. irudia. Arabako Campuseko baratzea.

Eremuen formak eta neurriak diseinatzerako orduan, neurriak eta geometria edukiak garatu dira.


Bi asteren buruan, proposamenen txostenak aurkeztu dituzte klasean, *Matematika eta bere Didaktika II* ikasgaiaren saioan, Hezkuntza eta Kirol Fakultatean. Proposamen anitzak jaso dira. Adibidez, 3 irudikoak baditu rokodromoa, lakua, baratzea, oilategia, sukaldea eta intsektuen hotela proposatzen dituen hamairu eremuen artean.



3. irudia. Gure eskolako baratzerako proposamen bat.

Errealitatean aurrera eramateko diseinua eskolako zuzendaritzak erabakiko luke. Hori gerorako gaia da; oraingoan, Lehen Hezkuntza graduko 3. mailako ikasle taldeak, berak, autoebaluazio eta koebaluazio prozesuen bidez aukeratu du diseinu egokiena.

Halaber, Geometria landuz, murala egiteko proposamen anitzak egin dituzte ikasleek (4 irudia).



4. irudia. Murala egiteko proposamenak.

Muralerako proposamen guztiak jasota, eskolako ikasle, irakasle eta gurasoek botoa emango dute, eta zein mural egin erabakiko lukete.

Horrela, lan honen bidez Lehen Hezkuntza graduko kompetentziak lortu eta Lehen Hezkuntzako irakasle izateko gaitasunak jorratu dituzte irakaskuntza-jarduera honetan parte hartu duten ikasleek.